

Erabiltzailea

Pasahitza

Ni gogoratu

[Erabiltzailea/Pasahitza gogoratu](#)

Aurten noraino?



Asteazkena, 2012-04-25

VILLABONA
AIZTONDOKO **hitza** info

- [Ekitaldiak](#)
- [Iragarki Laburrak](#)



- [Kirola](#)
- [Kultura](#)
- [Aisia](#)
- [Gizartea](#)
- [Ekonomia](#)
- [Politika](#)
- [Hartu hitza](#)
 - [Zorion Agurrak](#)
- [Herriak](#)
 - [Aduna](#)
 - [Amasa-Villabona](#)
 - [Asteasu](#)
 - [Larraul](#)
 - [Zizurkil](#)
- [Paperekoa](#)

Eskola Txikien festaren 25. urteurrena Larraulen ospatuko dute, ekainean

2012/04/25

[Hezkuntza](#), [Jaiak](#), [Larraul](#), [Paperekoa](#)

Eskola Txikien jaiak 25 urte betetzen ditu aurten, eta ospakizuna [Larraulen](#) izango da, ekainaren 3an.

Antolatzaileek, 260 biztanle inguruko herrian, 3.000 lagunengatik bisita aurreikusten dute. Horretarako, herri guztia lanean ariko da, eta aldeztu aurretik eskerrak eman nahi izan dizkie larrauldar guztiei.

Aurtengo jaiaren aurkezpen ekitaldia atzo egin zuten Donostiako Koldo Mitxelena kultur etxean. Ekainaren 3ko egitaraua aurkeztu zuten bertan, egun guztiko jaiak ordezkatzen duen kartela. Aurkezpen ekitaldi horretan, Mikel Olano Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundeko kidea, Lurdes Imaz Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkartearen koordinatzailea, Igor Iturain Eudeleko kidea eta Ixiar Eizagirre Larraulgo Guraso Elkartearen kidea egon ziren. Guztiek azpimarratu zuten Eskola Txikien beharra eta funtzioa, eta hor kokatzen da aurtengo jaiaren leloa: Eskola Txikiak, herri txikiak, 25 urtez bizirik.

Larraulgo Guraso Elkartearen izenean Ixiar Eizagirrek hitz egin zuen, eta jaiaren berria ilusio handiz hartu zutela azpimarratu zuen: «Batetik, festaren 25. urteurrena Larraulen izatea ohore handia zelako, eta bestetik, gure herriko eskolaren ibilbidean, momentu honetan esanahi berezia hartzen duela festak: guretzat ospatzea esan nahi du. Ospatu egin nahi dugu, azken lau urteotan Larraulen egin dugun lana, eta lortu dugun guztia». Izan ere, berriz ere eskola zerbitzua martxan jartzea lortu dute larrauldarrek, 30 urtez itxita egon eta gero.

Mikel Olanok bere aldetik, festaren ibilbidea eta 1988ko lehen jai hura ekarri nahi izan zituen gogora.

Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundeko ordezkariak, ondorio bat partekatu nahi izan zuen festaren inguruan elkartzeko diren guztiekin: «Proiektu hau aurrera eramateko ezinbestekoa da guraso, irakasle eta udalen elkarlana. Herri bakoitzean hiru eragile hauek batera lan egin behar dute, eskola aurrera atera dadin».

Egitaraua

Ekainak 3. igandea

10:00etan. Txupinazoa.

10:00etatik 12:00etara. Eskulanak eta tailerrak Hezkide eskolan, 8-12 urteko haurrentzat.

11:30ean. Pirritx eta Porrotxen emanaldi berezia. Hauek ere 25 urte betetzen dituzte. Plazan.

13:00etan. Ekitaldi nagusia eta testigu aldaketa, Urbeltza plazan.


14:00etan. Euskolabel bazkaria frontoian.

15:00etatik 16:30era. Gorritiren xexenak eta pottokak Otsozabal gunean.

Arratsaldean. Kupela taldearen erromeria, plazan.

Egun guztian zehar. Puzgarriak, bolatokia, idiak gurdiekin, Eskola Txikiei buruzko dokumentalaren proiektzioa, eta Kaxa ibiltaria erakusketa Eskola zaharrean.

Iruzkina



Erabiltzailea Pasahitza

[Izena eman](#) Berriketan.

Nabarmenak

[Asvineneako II. Kabareta eta Poltsiko lehiaketa](#)

Nork [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)

Musikaz, kolorez eta dibertsioz bete dute Asvinenean II. Kabareta, gaur 21:30etik aurrera. Sio-ren dantza tribala; Alegria Hermanas-en bakarrizketa; Iraitz eta Gastonen Trapegocentrismo; Ane Mirenen Bueltan [...]

[Irakurri gehiago](#)

[Herrira bilgunea aurkeztuko dute Aljibean egingo den ekitaldian, bihar 12:00etan](#)

[Nabarmenak](#), [Paperekoa](#)

Nork [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)

Herrian hutsik diren aulkiak betetzeko helburuarekin sortu dute Herrira bilgunea Amasa-Villabonan. Aurkezpen ekitaldia bihar, hilak 24ean, egingo dute Aljibean, 12:00etan. Herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte [...]

[Irakurri gehiago](#)

Hedabideak

- [Alegialdeko Hitza](#)
- [Anoetaldeko Hitza](#)
- [Ibarraldeko Hitza](#)
- [Leitzaldeko Hitza](#)
- [Tolosako Hitza](#)
- [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)



Eguraldia-en Villabona

Data	ask 25		osg 26	
	00-12	12-24	00-12	12-24
Zeruaren egoera				
Gutx./Gehi. Temp. (°C)	11 / 18	11 / 15	11 / 15	

© AEMET ▶



Aurki gaitzazu Facebooken

facebook



Tolosaldeko Eta Leitzaldeko Hitza

Atsegin dut


2,376 pertsonak atsegin dute Tolosaldeko Eta Leitzaldeko Hitza.




Josu



JAVIER



Maider



Ilargi



Facebookeko plugin soziala

Berriketan.info [\[RSS\]](#)

Viewing item 1 to 5 (of 5 items)

- [Album](#)
- [Guneak](#)
- [Events](#)
- [Facestream](#)
- [Gaiak](#)
- [Imported blog](#)
- [Profila](#)
- [Tweetstream](#)



[Urola Kostako Hitza](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du [Orioko udako lanpostuak lortzeko azterketa larunbatean egingo dute](#) gunean duela 5 minutu · [Ikusi](#)

Udan Orioko kanpineko zaindari eta garbitzaile lanetan, eta kabinen garbitzaile eta udaltzain laguntzaile postuak betetzeko 11 langile hartuko ditu udalak, eta horretarako azterketak egingo dituzte larunbatean, hilak 28, Orioko kultur etxean, 09:00etan. Orioko Udalak urtero atera ohi du udako lanpostuen deialdia,

eta aurtan, herritar gehiagok aurkeztu dituzte eskabideak; 115 lagunek egingo dute larunbateko froga, aurreko



• [Urtzi Urkizu](#)-(e)k eguneraketa bat bidali du: duela 7 minutu · [Ikusi](#)

Bartzelona-Chelsea partidak %48,4ko ikusle kuota izan zuen EAEn (455.000 ikus-entzule).



• [Errenteriako Hitza](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du '[90 semanas y media](#)' antzezlanaz [Gaztetxean](#) gunean duela 10 minutu · [Ikusi](#)

Cecilia Paganiniren eskutik *90 semanas y media* antzezlanaz emango dute etzi, 23:00etatik aurrera, [Gaztetxean](#). Lan horretan amatasuna eta haurdunaldiari buruz hitz egingo du umore ukituarekin Paganini clown-ak. Gorka Ganso da antzezlanaren zuzendaria.



• [Hendaiako Hitza](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du [Deportazio Egunaren zeremonia egingen dute igandean](#) gunean duela 17 minutu · [Ikusi](#)

Heldu den igandean, hilaren 29an, Deportazio Egunaren zeremonia egingen dute Hendaian, Gudari, Erresistentziako kide eta Deportatu Ohien elkarteek deituta. 10:30ean hasiko dira ekitaldiak, San Bixente elizan ospatuko duten mezatik hasita. 11:45ean elkarretaratzea izanen da Gaztelu Zaharren, eta, hori bukatuta, Herriko Etxeak aperitifaz eskainiko du udaletxeko 1. solairuko aretoetan.



• [Leitzaldeko Hitza](#)-(e)k beste sarrera bat idatzi du [Olazabalek eta Jaunarenak elkarren aurka jokatuko dute finala, larunbatean](#) gunean duela 18 minutu · [Ikusi](#)

Mikel Olazabal aresoarrak eta Jon Jaunarena leitzarrak, larunbatean elkarren aurka jokatuko dute Binakako Promozio pilota txapelketako finala. Biak ala biak eguna iristeko gogoz daude. Iruñeako Labrit pilotalekuko lehen koadroetan nor baino lehiatuko dira bi aurrelariak, eta bataren ala bestearen buruan bada ere, leitzaldera etorriko da txapela. Aresoarrak, Iñaki Larrinaga elorriarra izango du atzean lagun eta

Azken Eztabaidak

- markel(e)k [Jexux Mari Irazu: "Finalera iristea da nire helburua eta ilusioa"](#) bidalketan
- aitor(e)k [Pilota jaialdia eta txakolin dastaketa egongo dira bihar Amasan](#) bidalketan
- Xabier(e)k [Fraisoroko ama ezkongabeen eta hauen haurren ezkutuko istorioak argitaratu dituzte](#)

bidalketan

- elordi(e)k [Hutsik egiten ari ez dena, euria](#) bidalketan
- Villabonatarra(e)k [EAJ-k hiru alkategai aurkeztu ditu](#) bidalketan

© Tolosa Herria Hedabideak, S.M.

Araba Etorbidea 5, atzea, 20400 - TOLOSA - Tel.: 943 655 695 - Faxe 943 650 018 - E-posta: villabona-aiztondo@hitza.info

